1 Artikulu honen edukia *Kulturarteko Hezkuntzan Unibertsitate Master Euro-Latinoamerikar*erako (UNED) egindako azken lanean oinarritzen da, ikasleak 2017an aurkeztu zuena.



## 1. KULTURARTEKO IKUSPEGIA: KONTZEPTUAREN ERAIKUNTZAREN HISTORIA

Historian zehar, hainbat kontzeptuk esanahi oso anitzak izan dituzte toki eta unearen arabera. *Kultura-aniztasuna, multikulturalismoa, kulturartekotasuna* edo *interkulturalismoa* bezalako kontzeptuak erabili izan dira. Hitz hauek zehaztu ere egin izan dira, *multikulturalismo biguna* eta *kritikoa* bereiziz (Hernández eta Olmo, 2005); *harreman-kulturartekotasuna, kulturartekotasun funtzionala* eta *kulturartekotasun kritikoa* (Walsh, 2010) bereiziz; eta beste batzuk. *Kulturarteko hezkuntza, kultura-aniztasunerako hezkuntza, kulturarteko ikuspegia*,... kontzeptuak ere erabili izan dira.

Kontzeptu guzti hauek toki eta une zeharo ezberdinetan erabili izan dira, hala nola EEBB-etan eta Kanadan, Europan zein Latinoamerikan, 60., 70., 80. eta 90. hamarkadetan zein XXI. mendean zehar; eta kasu bakoitzean esanahi jakin batzuk bereganatu izan dituzte (Antolínez, 2011).

Jarraian, kontzeptu eta esanahi guzti hauek azaltzen hasi ordez, *kulturarteko ikuspegia* nola ulertzen dudana azalduko dut, *Kulturarteko Hezkuntzan Master Euro-Latinoamerikar*rean barneratu dudana ikuspegiaren oinarriturik. Ikuspegi honek, era beran, *INTER Taldearen*<sup>2</sup> ikuspegiaren dauka oinarria, aipaturiko Masterraren sortzaile eta arduraduna berau.

## 2. KULTURARTEKO IKUSPEGIA ZER DEN

Aguadok honela definitzen du Kulturarteko Hezkuntza:

*“Aniztasun kulturala errespetatzea eta aintzat hartzea oinarri dituen hezkuntza ikuspegia. Oro har, gizarteko kide bakoitzari eta guztiei zuzentzen zaie. Hezkuntza prozesuaren alor guztiei eragiten dien lan egiteko era bat proposatzen du. Bere helburuak, guztientzako benetako aukera/emaitza berdintasuna lortzea, arrazakeriaren adierazpide guztiak gainditzea eta irakasle eta ikasleengan kulturarteko kompetentzia garatzea dira”* (Aguado, 1995, INTER Taldea, 2006:3-n aipatua).

Ondorengo ataletan definizio hau garatuko dut. Hasteko, aipaturiko hezkuntza ikuspegiaren berezitasuna zein den azalduko dut eta, ondoren, bere oinarritzko printzipio eta helburuak zeintzuk diren.

<sup>2</sup> INTER Taldea “hainbat espainiar eta atzerriko sail eta erakundetako irakasle eta ikasleek osatzen dute. Aniztasun kulturalaren eta hezkuntzaren inguruan irakatsi eta ikertzeko gune bat da. Aniztasuna ezartzen dugu hausnarketa pedagogiko ororen erdigunean eta, aipaturiko aniztasun hori, salbuespen bat izan beharrean, gizatalde guztietan araua dela uste dugu. Kulturarteko ikuspegia, hezkuntzaren arloan aniztasuna zehazteko eta beroni erantzuteko begirada bat bezala proposatzen dugu” ([www2.uned.es/grupointer](http://www2.uned.es/grupointer)).

2011/12 ikasturteetik aurrera, INTER Taldeak [Kulturarteko Hezkuntzan Unibertsitate Master Euro-Latinoamerikarra](#) ematen du, GHEE-ra egokitutako Master Ofizial bat.

## 2.1. KULTURARTEKO IKUSPEGIA: ANIZTASUNA IKUSTEKO ETA PENTSATZEKO MODU BAT

Aurreko definizioak *hezkuntza ikuspegi* bati buruz hitz egiten digu. Jarraian aurkeztuko dudana *kulturarteko ikuspegiari* buruz, hain zuzen. *Kulturarteko ikuspegi* honen funtsezko berezitasuna zera da, aniztasuna ikusteko eta pentsatzeko modu zehatz batean oinarritzen dela.


Honek lau eztabaidagai nagusi dakarzkigu:

### 2.1.1. Aniztasuna vs. Ezberdintasuna.

Aniztasuna “*uneoro gertatzen da gizakien artean eta bizitzaren beraren parte bat da*” (Aguado, 2010:15). Izan ere, gertatu egiten da, araua da. Bi pertsona dauden tokian aniztasuna dago, ez baitaude guztiz berdinak diren bi pertsona. Ikuspegi honetatik abiatuz, *aniztasun* kontzeptua ez dator “*soilik etiketa nazional edo etnikoei, ezta talde bereziei edota gutxiengoei lotuta*” (INTER Taldea, 2006:3); ostera, aniztasuna osatzen duten aldagai guztiak hartzen ditugu kontutan.

Gauzak honela, bereizi egiten ditugu *aniztasuna* eta *ezberdintasuna*, azken hau “*hierarkiadun eta hierarkia sortzaileak diren sistemak bultzatzea helburu duen eraikuntza sozial bat, zehazkiago aniztasunaren aldagaien aukeraketa bat -partziala betiere-*” dela ulertzen baitugu (García, Granados eta Pulido, 1999:6).

Hau da, aniztasuna osatzen duten aldagai guztien artean bat bakarra edo gutxi batzuk aukeratzen ditugu eta, aukeratu ditugun aldagai horien arabera, batzuk eta besteak ezberdinak garela esaten dugu. Horrela, eraiki ditugun ezberdintasun horien arabera, taldekatu egiten ditugu bai batzuk eta bai besteak eta, azkenean, urruntasunak sortzen ditugu taldeon artean. Beste era batera esanda, ezberdintasuna eraikiz taldeak sortzen ditugu eta askotan “*ezberdintasunak hipertrofiatzen*” (Aguado, 2010:15) laguntzen dugu.



Honez gain,

*“ezberdintasunei bestelako esanahiak ematen dizkiegu. Ezberdintasun batzuei beste batzuei baino balio handiagoa ematen diegu eta bestelako balio hori pertsona batzuen eta beste batzuen eskubideak legitimatzeko erabiltzen dugu; ezberdintasunek, beren kabuz, gizarte baten pribilegioetara eta ongietara sarbidea, eta sarbiderako eskubidea bera ere, azalduko balute bezala”* (INTER Taldea, 2006:45).

Beraz, ondorio honetara iritsi gaitzake: eraikitako ezberdintasun hauen arabera jokatzek - aniztasuna gizakiak berezkoa duela ulertu ordez- arrisku bat dakarrela; *“aniztasuna berezkoa duen mundu batean berdintasunik eza justifikatzea”* (García, Granados eta Pulido, 1999:2), hain zuzen ere.

### 2.1.2. Aniztasun kulturala vs. Kultura ezberdinak.

Ildo beretik jarraituz, bereizi egiten ditugu *kultura ezberdinak* eta *aniztasun kulturala*. Antropologoaren artean, *kultura* kontzeptuak eztabaida luzeak sorrarazi izan ditu historian zehar. Gaur egun, autore batzuk *“ez dute kontzeptu hau onartzen, edo berau erabiltzea saihestu egiten dute”* (Olmo eta Hernández, 2004:2), *kultura* kontzeptua erabiltzeak nahitaez pertsonekin kategoriak eratzea dakarrela uste baitute eta, ondorioz, ondorengo akatsak egitea (Olmo eta Hernández, 2004):

- *Kultura* berekoak diren pertsonen sineskera eta balio berberak partekatzen dituen talde homogeneo bat osatzen dutela sinestea, haien artean ezberdintasun esanguratsurik ez balego bezala.
- Arrazoi beragatik, talde edo *kultura* bateko pertsonak beste *kultura* bateko pertsonengandik nabarmenki ezberdinak direla sinestea, haien arteko antzekotasunak alde batera utziz eta gizatalde batzuk besteengandik bereizten dituzten alderdiak azpimarratuz; eta honela elkarrengandik urrundutako bloke ezberdinen artean urruntasunak sortzea.

Honen harira, Abu-Lughod-en esanetan, hain kategorizatzailea den *kulturaren* ikuspegi honek *“toki eta garaiari dagokionean [...] pertsonen kartzelaratzeko etengabe bat”* (Abu-Lughod, 2012:141) dakar eta *“bere arbasoaren -arrazo, hain zuzen- oso antzera egiten du lan”* (Abu-Lughod, 2012:138).


Hausnarketa hauek kontuan hartuta, *kulturarteko ikuspegiaren* arabera, *“kultura ezberdinei buruz hitz egitea, hauek izaki zarratuak balira bezala [...] ikuspegi zaharkitu bat”* (Aguado, 2010:16) dela ulertzen dugu, ideia honek ez baitigu *“mestizaia eta hartu-emanen konplexutasuna”* (Aguado, 2010:16) azaltzen uzten.

Hala ere, maiz oso zaila izaten da *kultura* kontzeptua ez erabiltzea. Ordezkatuko duen beste kontzeptu baten beharra agertzen zaigu. Baina, zein?



Appadurai-k (2001), izenaren ordeztasun erabiltzea proposatzen digu, hau da, *kultura* kontzeptuaren ordeztasun *kulturala* kontzeptua erabiltzea. Honela, ez genuke *kulturari* buruz hitz egingo, beraz pertsona bakoitzak edo pertsona talde bakoitzak alde bereko eta erabat zehaztutako eta mugatutako zerbait bezala ulerturik. Ohera, *kulturalari* buruz hitz egingo genuke, hau da, pertsonen “*testuinguru dimentsioa*” (Appadurai, 2001:15) nabarmenduko genuke, errealitate lausoago bat beraz, zehaztugabeagoa eta eragiten diguna, “*baina ez dakigu zein modutan*” (Aguado, 2010:17).

Bestalde, INTER Taldearen arabera, “*kulturaren ideia aniztasun kulturalaren printzipioak ordezkatzeko du*” (Aguado, 2010:17) eta azken hau pertsona guztion ekarpenez osatzen da. *Aniztasun kulturala* aintzat hartzeak, “*alde aurreko adskripzio finko eta kategorizatzaileak alde batera utziz, bestea aintzat hartzea*” (Aguado, 2010:17) dakar, nahitaez.



### 2.1.3. Kulturartekoa komunikazioa eta hartu-emanak dira.

Aurrekoa azaltzeko, *kulturarteko ikuspegiak*, *kulturalaren* izaera lausoak (aldakorra, ezegonkorra) eta mugarik gabekoa nabarmentzen du eta, beraz, irekia, nahasia eta heterogeneoa, aldaketa etengabe pairatzen duena eta pertsonen arteko elkarrekin bidez eraiki eta berreraikitzen dena.



Honela, “*funtsezkoena ez da kulturak deskribatzea, baizik eta kultura ezberdinetakoak direla dioten gizabanako eta gizataldeen artean zer gertatzen den aztertzea; beren erabilera kulturalak eta komunikazio erabilerak aztertzea*” (Aguado, 2010:17).

Beraz, *kulturarteko ikuspegiaren arabera,*

“*hezitzaileak ez dio hainbeste kulturari erreparatzen, kulturak berak pertsonen jokaerak erabakiko balitu bezala; ostera, pertsona bakoitzak bere ezaugarri kulturalak nola erabiltzen dituen aztertzen du, hitz egiterakoan, zerbait adierazterakoan, bai ahoz, bai gorputzarekin, bai gizarte mailan bai pertsona mailan*” (Aguado, 2010:18).

Hau da, munduarekin eta pertsonekin hartu-emanen aritzerakoan.

Honen harira, kontuan hartu beharra daukagu, *kulturalaren kontzeptua ez ezik, nortasunaren kontzeptua ere aldakorra eta heterogeneoa dela*. Bai batak eta bai besteak, soilik “*testuinguru intersubjektibo batean*” hartzen dute zentzua eta “*hartu-emanen eta arrazoiketen emaitza dira*” (Abdallah-Pretceille, 2006:8). Hau da, bai *kulturala* eta bai *nortasuna*, beste pertsona batzuekiko eta egoera berriekiko hartu-emanaren bidez sortzen eta birsortzen dira etengabe. Honela, pertsonak hainbat nortasunez osaturik gaudela esan dezakegu eta, gainera, hauek aldatuz doazela bizitzan zehar, beste pertsona eta egoera batzuekiko elkarreraginaren eta hartu-emanen bitartez.

#### 2.1.4. *Kulturartekoa praktikan gauzatzen da.*

“*Ez dago berez kulturartekoa den gertaerarik [...]. Kulturarteko azterketak baino ezin diezaioke izaera hori eman*” (Aguado, 2010:17). Honela, esan dezakegu Plan, Programa edo hezkuntza praktika bat ez dela *kulturartekoa* izen hau eramate hutsagatik; ostera, *kulturartekoa* izango da, berau *kulturarteko ikuspegiaren arabera* gauzatzen bada. Era berean, Plan, Programa edo hezkuntza praktika bat, *kulturartekoa* izena eraman ez arren ere, *kulturartekoa* izango da, berau *kulturarteko ikuspegiarekin* bat baldin badator.

Era zehatzago batean esanda, kulturarteko praktikaren alorrean aurkitzen gara, hezitzaile bezala honela jarduten dugunetan:

1. Pertsona baten *kultura* azaltzen ahalegindu beharrean, bere erreferentziazko taldearen funtsezko arauak hartzen ditugu kontuan eta hauek “*umeen jokaeraren erreferentzia esparru bezala eta ez haren erabakigarri bezala*” (Olmo y Hernández, 2006:7) ulertzen ditugu.



2. “Arau horien eta norberaren arauen artean gerta litezkeen gatazka eremuak antzematen” ahalegintzen gara eta “ume bakoitzak egin behar duen egokitzapena errespetatzen dugu; eta baita norberak egokitzapen hori egitearen beharra” (Olmo y Hernández, 2006:7) ikusten dugu.

3. “Gure arauak besteenekiko erlatiboak direla, besteekin hartu-emanen egokitzen ditugula eta, batzuetan, ez dakigula arau batzuen eta beste batzuen artean sortzen diren gatazkak nola kudeatu” (Olmo y Hernández, 2006:8) ohartzen ahalegintzen gara.

## 2.2. KULTURARTEKO IKUSPEGIAREN PRINTZIBIO ETA HELBURUAK

Behin kulturarteko ikuspegiaren berezitasun nagusia aurkezturik, ondoren, bere oinarritzko printzipio eta helburuak zeintzuk diren azalduko dut.

Aguadoren definiziora itzuliz, Kulturarteko Hezkuntza zera da:

“Aniztasun kulturala errespetatzea eta aintzat hartzea oinarri dituen hezkuntza ikuspegia. Oro har, gizarteko kide bakoitzari eta guztiei zuzentzen zaie. Hezkuntza prozesuaren alor guztiei eragiten dien lan egiteko era bat proposatzen du. Bere helburuak, guztientzako benetako aukera/emaitza berdintasuna lortzea, arrazakeriaren adierazpide guztiak gainditzea eta irakasle eta ikasleengan kulturarteko kompetentzia garatzea dira” (Aguado, 1995, INTER Taldea, 2006:3-n aipatua).

Honek hainbat eztabaidagai dakarzkigu:

### 2.2.1. Aniztasuna abiapuntu.

Hezkuntza ikuspegi honek, kulturarteko ikuspegiak, “aniztasun kulturala errespetatzea eta aintzat hartzea ditu oinarri”.

Aurrerago adierazitakoaren arabera, aniztasun hau ez dator soilik etiketa nazional edo etnikoei, ezta talde berezi edota gutxiengoei lotuta. Oстера, aniztasuna osatzen duten aldagai guztiak hartzen ditugu kontutan; eta baita, pertsonen arteko hartu-emanen bidez, etengabeko berreraikuntza pairatzen duten kulturalaren eta nortasunaren izaera aldakor eta heterogeneoa ere.

Beraz, aniztasun kulturala errespetatzea eta aintzat hartzea oinarri izateak, aldagai guztiok kontuan hartu behar ditugula esan nahi du; azpimarratuz, hala ere, aldagaiok “ez ditugula soilik aintzat hartzen, baizik eta abiapuntutzat hartzen ditugula ikasgeletan eta gure inguruan estrategia erabilgarriak diseinatzeke” (INTER Taldea, 2006:40).



### 2.2.2. Guztion partaidetza.

*Kulturarteko ikuspegia “oro har, gizarteko kide bakoitzari eta guztiei zuzentzen zaie”.*

*Kulturarteko ikuspegiaren helburua, beranduago aurkezten dudan bezala, gizarte inklusibo baterako hiritarrak heztea dela onarturik, hura nahitaez zuzendu behar zaie oro har, gizarteko kide bakoitzari eta guztiei.*

Bestalde, hiritartasunak nahitaez “*parte hartzea*” (INTER Taldea, 2006:209) dakarrela onarturik, *kulturarteko ikuspegia* gizarteko kide bakoitzari eta guztiei, parte hartzera mugiaraziz zuzentzen zaigula esango nuke.

Beste batzuen artean, hezkuntza eta gizarte prozesuetan parte hartzera mugiarazten gaitu - eskolan ikasleak, familiak, irakasleak eta beste hezkuntza eragileak eta gizartean pertsona bakoitza-; honela, guztiok batera, bakoitzak gure egoera eta aukeren arabera, eskola eta gizarte inklusibo bat sortzen lagundu dezagun.

### 2.2.3. Eskola-Familia-Gizartea bat eginik.

*Kulturarteko ikuspegiak “hezkuntza prozesuaren alor guztiei eragiten dien lan egiteko era bat proposatzen du”.*

Idealki, “*eskola, familia eta gizartea, batak besteak osatzen dituen sistemak izango lirateke*” (INTER Taldea, 2006:74), bai gizarte eta hezkuntza alorrean esku hartzeko proposamen eta plangintzei dagokienean eta baita eskolaren eta gizarteko beste alor batzuen eraldaketa prozesuei dagokienean ere. Honela,

*“beharrezkoa da eskolek aukera berdintasuna sustatzen duten neurriak praktikan jartzea, baina hori bezain beharrezkoa da, neurri horiek beraiek, lan, familia eta gizarteko beste alorretan ere beren baliokideak aurki ditzatela”* (INTER Taldea, 2006:3).

### 2.2.4. Guztientzako aukera berdintasuna eta arrakasta gizarte inklusibo batean.

*Kulturarteko ikuspegiaren helburua “guztientzako benetako aukera/emaitza berdintasuna lortzea” da.*

Guztientzako aukera berdintasuna eta arrakastak, “*eskolan, guztientzako hezkuntza inklusiboarenganako hurbila den filosofia*” (INTER Taldea, 2006:2) abiapuntutzat harturik, ondorengoa dakar nahitaez:

*“ikasleen gaitasun, talentu eta esperientzia guztiak abiapuntu baliagarri lez hartu behar direla, justizian eta guztien emaitza akademikoen ekitaterako benetako aukeran oinarritzen diren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak eraikitzeke” (INTER Taldea, 2006:3).*

Ekitatea, bestalde, *“ikasle guztiak beren gaitasunak ahalik eta gehien garatu ahal izateko aukera berdintasuna”* (Bennet, 2001, Gil Jaurena, 2003:3-n aipatua) bezala ulertuko dugu hemen.

Urrunago joanez, nik zera esango nuke: *kulturarteko ikuspegiaren helburua gizarte inklusibo bat lortzea dela. Eta bertan, “ezberdintasunaren esanahia ezberdintasun bat baino ez da: ez urritasun bat, ezta mehatxu bat ere”* (INTER Taldea, 2006:117). Beraz, guztiontzako aukera berdintasuna eta arrakasta lortzeko helburuak, arlo akademikotik kanpo beste arlo batzuk ere barne hartzen ditu, hala nola arlo soziala, familiartekoa, lan arloa, auzokoa, osasunarena, politikarena eta baita gizarteko beste edozein arlo ere.

#### 2.2.5. Arrazakeria gainditu.

*Kulturarteko ikuspegiaren helburua “arrazakeriaren<sup>3</sup> adierazpide guztiak gainditzea” da.*

Aipatutako gizarte inklusiborako asmo honetan, hezitzaile eta profesionalongandik hasita,

*“guztiok jaso beharko genuke hezkuntza antiarrazista motaren bat, ezberdintasun jakin batzuen eta botere, ondasun eta gizarte pribilegioetara sarbide handiagoa ala txikiagoa izatearen arteko lotura apurtuko lukeena. Honela ez ditugu hizkuntza edo erlijio edo jaioterri edo azal kolore batzuk besteen gainetik edo azpitik baloratuko”* (INTER Taldea, 2006:45).

#### 2.2.6. Kulturarteko konpetentzia garatu.

*Kulturarteko ikuspegiaren helburua “irakasle eta ikasleengan kulturarteko konpetentzia<sup>4</sup> garatzea” da.*

<sup>3</sup> INTER Taldeak honela definitzen du arrazakeria: *“jokaera sozial bat, [eta berau babesten duten ideia eta erakunde sozio-politikoak], pertsonak taldetan sailkatzean datzana, helburua taldeen arteko hierarkia justifikatzea duena, batzuk beste batzuk baino hobekak direla sinestaraziz. Hierarkia honek, talde bateko pertsonen pribilegioak beste talde batzuetakoenen gainetik ezartzera eta onartzera eramaten gaitu, ondasun sozialei dagokienean: boterea, ohorea eta dirua; eta desabantailaren errua biktimarengan ezartzeko gaitasuna dauka, guztiak sinestarazten baitaie pertsona batzuk gehiago balio dutela eta, beraz, gehiago eta hobeto merezi dutela”* (INTER Taldea, 2007: 160).

<sup>4</sup> Byram, Gribkova eta Starkey-ren arabera (2002), *kulturarteko komunikazio gaitasuna* ondorengoez osatzen da: ezagutzak (gizataldeei buruzkoak eta gizataldeen zein gizabanakoen arteko hartu-eman prozesuei buruzkoak), gaitasunak (mezuak sortzeko eta interpretatzeko, ikasketa berriak barneratu eta horien araberrako hartu-emanak izateko, gaitasun sozialak) eta jarrerak (jakin-nahia, irekita egotea, norbere eta beste gizataldeen sineskerak eta jokaerak erlatibizatzeke prestutasuna, kulturala denarenganako kontzientzia kritikoa); guzti hauek, bakoitzak gizatalde jakin batzuetatik etortzeagatik dauzkan balioekin osaturik.

Gizarte inklusibo baten nahiarekin jarraituz, zera esango nuke: beronen oinarria, nahitaez, “*adimen demokratiko*”-dun (INTER Taldea, 2006:121) hiritarrek elkarrizketa bidez eraikitako bizikidetzak izan behar dela. Adimen demokratikodun hiritarrak,

“*auzo bilera batean beren jarrerak defendatzen dituzten pertsonak*” dira eta ez, ordea, “*bestetik gabe hautetsontzi batean beren botoak sartzen dituztenak*” eta, beraz, “*ez dutenak herritar bezala jokatzeko, baizik eta kontsumitzaile bezala*” (Hess, INTER Taldea, 2006:121-n aipatua).

Honen harira, gogoratu beharra daukagu “*hiritartasuna ez dela estatus bat, baizik eta ikasi beharreko praktika bat*” (INTER Taldea, 2006:121). Honela, kulturarteko konpetentziadun pertsona

“*beste batzuekin*” hartu-emanak izateko gaitasuna duen pertsona bat da, beste ikuspuntu batzuk eta mundua ulertzeko beste era batzuk onartzeko gaitasuna duena, ikuspuntu ezberdinen artean bitartekari izateko gaitasuna eta aniztasunarekiko bere iritziez jabetzeko gaitasuna dituen” (Byram, Nichols y Stevens, 2001, Gil Jaurena, 2003:3-n aipatua).

Eskola alorrean, “*guztiok -irakasle, lankide, ikasle, guraso, etab.- ikasi behar dugu taldekideok partekatzen ditugun arau eta balioak adosten, gure helburuak lortzen lagunduko dizkigutenak, hain zuzen*” (INTER Taldea, 2006:44).

### 3. HAMAR IRIZPIDE LAGUNGARRI GIZARTE ETA HEZKUNTZA ALORREAN KULTURARTEKO IKUSPEGIAREKIN BAT DATOZEN PROGRAMAK GARATZEKO

Orain artekoak kontutan hartuta, era laburrean honela definituko nuke *kulturarteko ikuspegia*: aniztasuna ikusteko eta pentsatzeko modu zehatz bat, *aniztasuna* eta *ezberdintasuna* bereizten dituen, *aniztasun kulturala* eta *kultura ezberdinak* bereizten dituen, *kulturartekoa* komunikazio eta hartu-eman bezala ulertzen duena eta *kulturartekoa* praktikan gauzatzen dela ulertzen duena.

Honez gain, *kulturarteko ikuspegiaren* printzipioak hauek dira: daukagun aniztasuna abiapuntutzat hartzea; oro har gizarteko kide bakoitza parte hartzera mugitu araztea; eta eskola, familia eta gizarteak bat egin dezatela bultzatzea.

Azkenik, *kulturarteko ikuspegiaren* helburu nagusia gizarte inklusibo bat eratzea da, ondorengoetan oinarritzen dena: pertsona guztientzako aukera berdintasuna eta arrakasta, bizitzako eta gizarteko arlo guztietan; arrazakeria gainditzea; eta adimen demokratikodun eta

kulturarteko komunikazio gaitasun handidun hiritarrek elkarrizketa bidez eraikitako bizikidetza.

Guzti hau esanda, ondoren, *kulturarteko ikuspegia* definitzen duten hamar irizpideak formulatuko ditut. Nire ustez, hamar irizpide hauek funtsezkoak dira *kulturarteko ikuspegiarekin* bat datorren edozein gizarte eta hezkuntza arloko programa aurrera eramateko.

Irizpide hauek, beraz, gure esku hartzeak diseinatzen, gauzatzen eta ebaluatzen, hala nola material didaktikoak sortzen, lagun diezaguketelakoan nago, kulturarteko hezkuntzaren esparruan gizarte eta hezkuntza arloan lan egin nahi dugun edozein profesional edo hezkuntza talderi.

- 1) *Aniztasuna vs. Ezberdintasuna*. *Aniztasuna* gizakiak berezkoa duela ulertzen da. Ez dator soilik etiketa nazional edo etnikoei, ezta talde bereziei edota gutxiengoei lotuta; ostera, aniztasuna osatzen duten aldagai guztiak hartzen dira kontutan. Eta aniztasunak ez du ezberdintasunaren ezta berdintasunik ezaren ideiarik ezkututzen.
- 2) *Aniztasun kulturala vs. Kultura ezberdinak*. *Aniztasun kulturalaren* ideia erabiltzen da, alde aurreko adskripzio aldaezin eta kategorizatzaileak alde batera uzten dituen eta pertsona guztien ekarpenez osatzen dena; edo, gutxienez, *kulturalaren* ideia erabiltzen da, pertsonen testuinguru dimentsioa nabarmentzen duena. Eta *kulturaren* ideia baztertu egiten da, berau kategoriatu finko, aldaezin eta esentzialista bezala ulertzen baita, pertsonak sailkatu eta lotu egiten dituen eta beste *kultura* batzuekiko argi eta garbi bereiz daitekeena.
- 3) *Kulturartekoa komunikazioa eta hartu-emanak dira*. Bai *kulturartekoa* bai *nortasuna* aldakorak eta heterogeneoak direla ulertzen da; eta beste pertsona eta egoera batzuekiko hartu-emanaren bidez sortzen eta birsortzen dela.
- 4) *Kulturartekoa praktikan gauzatzen da*. Plan, Programa edo hezkuntza praktika bat *kulturartekoa* dela ulertuko da, gauzatzean *kulturarteko ikuspegiarekin* bat datorren heinean; bere izena “kulturartekoa” izan zein ez izan.
- 5) *Aniztasuna abiapuntu*. Egoera jakin batean, aniztasuna osatzen duten aldagai guztiak hartzen dira kontutan eta abiapuntutzat hartzen dira programak eta estrategiak diseinatzeko.
- 6) *Guztien partaidetza*. Programak eta estrategiak, oro har gizarteko kide bakoitzari eta guztiei zuzendutakoak dira eta guztien parte hartzea bultzatzen dute.



- 7) *Eskola-Familia-Gizartea bat eginik*. Eskola, familiak eta gizartea sistema berberaren parte dira, bai esku hartze proposamenei dagokienean eta baita eraldakuntza prozesuei dagokienean ere.
- 8) *Guztientzako aukera berdintasuna eta arrakasta gizarte inklusibo batean*. Aukera berdintasuna bilatzen da, pertsona guztiek beren gaitasunak ahalik eta gehien garatzea lor ditzaten eta honetarako beharrezkoak diren neurriak hartuz.
- 9) *Arrazakeria gainditu*. Pertsona guztientzako hezkuntza antiarrazista motaren bat proposatzen da.
- 10) *Kulturarteko konpetentzia garatu*. “Adimen demokratiko”dun eta kulturarteko gaitasundun hiritarrek elkarriketa bidez eraikitako bizikidetzeta bilatzen da.

## BIBLIOGRAFÍA

- Abdallah-Preteceille, M. (2006). “El paradigma intercultural como mirada hacia la diversidad”. *Actas Congreso INTER*. Madrid: Servicio Publicaciones UNED. Eskuragai: [www.uned.es/congreso-inter-educacion-intercultural](http://www.uned.es/congreso-inter-educacion-intercultural) [azkenengoz ikusia: 2017ko uztaila].
- Abu-Lughod, Lila (2012). “Escribir contra la cultura”. *Andamios. Revista de Investigación Social*, 9. bol., 19. zkoa., 129-57 or.
- Aguado, T. (2010). “El enfoque intercultural como metáfora de la diversidad en educación”. Aguado, T.; Del Olmo, M. (2010). *Educación intercultural. Perspectivas y propuestas*. Madrid: Ed. Ramón Areces, 13-27 or.
- Antolínez, I. (2011). “Contextualización del significado de la educación intercultural a través de una mirada comparativa: Estados Unidos, Europa y América Latina”. *CEIC*, 2011/2 #73 bol.
- Appadurai, A. (2001). *La modernidad desbordada. Dimensiones culturales de la globalización*. Mexiko: Ediciones TRILCE, FCE.
- Byram, M.; Gribkova, B.; Starkey, H. (2002). *Developing the intercultural dimension in language teaching. A practical introduction for teachers*. Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- García Castaño, F. J.; Granados, A.; Pulido, R. (1999). “Reflexiones en distintos ámbitos de la construcción de la diferencia”. *Lecturas para educación intercultural*. Madrid: Trotta, 1-19 or.
- Gil Jaurena, I. (2003). “La educación intercultural: una propuesta para la nueva alfabetización”. Eskuragai: <http://aulaintercultural.org/2004/12/13/la-educacion-intercultural-una-propuesta-para-la-nueva-alfabetizacion> [azkenengoz kusia: 2017ko uztaila].
- INTER Taldea (2006). *Guía INTER. Una guía para aplicar la educación intercultural en la escuela*. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia.





- INTER Taldea (2007). *Racismo: ¿qué es y cómo se afronta? Una guía para hablar sobre racismo*. Madrid: Pearson.
- Hernández Sánchez, C.; Olmo Pintado, M. del (2005). “Multiculturalismo”. Hernández Sánchez, C.; Olmo Pintado, M. del (2005). *Antropología en el Aula. Una Propuesta didáctica para una sociedad multicultural*. Madrid: Síntesis, pp. 143-183.
- Olmo Pintado, M. del; Hernández Sánchez, C. (2004). “Diversidad cultural y educación. La perspectiva antropológica en el análisis del contexto”. Vera-Muñoz, M.; Pérez i Pérez, D. (coord.) (2004). *Formación de la ciudadanía: las TICs y los nuevos problemas*. Alicante: Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes, 2004.
- Olmo Pintado, M. del; Hernández Sánchez, C. (2006). “Identidad y educación. Una perspectiva teórica”. *ÍBER. Didáctica de las Ciencias Sociales, Geografía e Historia*, 47. Zkia., 7-13 or. Barzelona: Graó.

---

Harremanetarako:

**Idurre Ormaetxea:** [idurr76@hotmail.com](mailto:idurr76@hotmail.com)

